



ZUBERERAREN IDAZKERAZ: ORTOGRAFIA, FONETIKA ETA FONOLOGIA

Jean-Baptiste Coyos

► To cite this version:

Jean-Baptiste Coyos. ZUBERERAREN IDAZKERAZ: ORTOGRAFIA, FONETIKA ETA FONOLOGIA. Lapurdum, 2002, VII, pp.201-219. artxibo-00000009v1

HAL Id: artxibo-00000009

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000009v1>

Submitted on 27 Jun 2005 (v1), last revised 19 Dec 2005 (v3)

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Zubereraren idazkeraz : ortografia, fonetika eta fonologia

Jean-Baptiste / Battittu Coyos
UMR 5478

RÉSUMÉ : Le souletin est un dialecte basque reconnu. Lors de son congrès de Bergara en 1978, l'Académie de la langue basque a décidé qu'il ne devait y avoir qu'une orthographe pour la langue basque et qu'elle devait donc être appliquée à tous les dialectes, avec quelques tolérances toutefois. Ainsi, concernant le souletin, une orthographe proche de celle du batua standard s'est peu à peu imposée. C'est celle qui est utilisée, avec plus ou moins de rigueur, par la plupart de ceux qui écrivent en dialecte.

Dans cet article on dégage les relations qui existent entre cette nouvelle orthographe et la phonologie et la phonétique du souletin. Les correspondances entre les caractères graphiques retenus et les sons et phonèmes sont mises à jour. Il en ressort que quelques aménagements pourraient être effectués afin de rendre cette orthographe plus proche de la phonologie du dialecte. Au plan pratique cela en faciliterait l'apprentissage, le souletin étant de moins en moins transmis oralement en famille, et pourrait permettre d'aider à conserver certaines de ses caractéristiques orales. Au plan symbolique une graphie plus spécifique serait une preuve de reconnaissance du dialecte, sachant bien qu'une orthographe n'est jamais totalement phonétique ou phonologique et que, d'autre part, le souletin, comme les autres dialectes basques, tend à se rapprocher du basque standard.

1. SARRERA

Zuberera euskalki bat dela aspaldidanik onartua da. Mendeen zehar zenbait idazlek zubereraz idatzi dute eta orain gero eta gehiago dira zubereraz idazten dutenak, batez ere pastoral testuak. Denborarekin zubereraren idazkera aldatu da. Artikulu honetan aztertu nahi genuke zertan den oraiko zubereraren ortografia eta zein diren horren ahozko mintzairarekilako loturak¹.

1.1 Euskaltzaindiaren erabakiak euskalkien idazkeraz

« Arantzazuko Biltzarreko prestatu zuen txostenean, Euskara Batua euskara idatzirako zela mugatu zuen Koldo Mitxelena » (Euskaltzaindia, 1998 : 1). « Ezin-bestekoa. il-edo-bizikoa (sic), dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena da » (Mitxelena, 1968 : 203). Artikulua honetan zehar, 1968an Arantzazun Mitxelena Euskaltzaindiari aurkeztu zizkion idazkerazko eskabide batzu aipatuko ditugu. Oraiko zubereraren idazkeran onartuak izan dira. Ber bidean ibiliz, bere 1978ko Bergarako biltzarrean, Euskaltzaindiak erabaki garrantzitsu batzu hartu zituen idazkerari buruz : « Zein da Euskaltzaindiaren jarrera euskalkiei eta toki bateko hizkeriei buruz ? Adierazpenean esaten da Euskaltzaindia horiek lantzearen alde dela baina beti ere ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz » (1979 : 101). Eta gai hori zaila zela bazakian : « Beste aldetik, puntu hau garrantzitsua dela ez da dudarik, zeren gaur tiroak Euskaltzaindiari hortik heldu baitzaizkio. Hots, euskalkien eta herriko euskararen izenean » (ibid.).

¹ Eskerrak emaiten dizkiet Junes Casenave-Harigile-ri, Jean-Louis Davant-i testu honen lehen bersioari buruzko haien ikusmoldea eman didatelakotz. Horrek ez du erran nahi arras ados direla idatzi dudanarekin. Eskerrak ere Xarlex Videgain-i bere irakurtze ernearengatik. Laburdurak : adib. = adibidez, bat. = batua, ik. = ikus, zub. = zuberera. Adibideetan hitzen forma ortografikoa hizki etzanean agertzen da, fonetiko [] artean eta fonologikoa // artean.

Alabaina euskalkien ortografia bera eta bakarra izan behar da Euskaltzaindiaren ustez : « Euskara hizkuntza bat da eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza osoarentzat ortografia bat onartua denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili behar dela bai euskalkietan eta bai euskara batuan ere... Hizkuntzaren barnean ortografia bat baino gehiago erabiltzeari kaltegarri deritza Euskaltzaindiak » (1979 : 104)². Hogeitaz hamar urtez goizago, ez zen Henri Gavel-en iritzia, adibidez : « ...le souletin a autant de droit que n'importe quel autre dialecte à être pourvu d'une orthographe qui tienne compte de ses particularités propres » (1960 : 213). Euskaltzaindiaren ustez euskararen oinarri batu bat badugu : « Euskalkien axaleko ñabarduren gainera hor da hizkuntzaren muin sakon eta iraunkor hori, hizkuntzaren oinarri batua, eta hori da beti gogoan eduki behar duguna, baita euskalkiak lantzen direnean ere » (1979 : 105). Bainan Euskaltzaindiak azpimarratzen zuen, ber aldiari, ez zuela ahoskatzea arautu nahi : « Erabaki hauek grafiari begira daude eta oraingoz ahoskatzeaz ez da ezer adierazten » (1979 : 92).

Horretan da erronka zeren eta, dakigun bezala, ortografiak eta ahoskatzeak lotuak baitira, nahi ala ez. Eta ortografiak ez baldin badu ahoskera manatzen, eragintzen du halere. Ber denboran ere ez dugu ahanzi behar idazkera ahozko mintzairatik etortzen dela eta ez kontrakoa.

1.2 Zubereraren ortografiaren finkatzeaz

Euskaltzaindiak bere 1999ko *Zuberoako herri eta herritarren izendegia*-n behin betiko Zuberoako herri eta herritarren izenen ortografia finkatu ditu³. Gauza on bat da eta erabaki mota horiek Euskaltzaindiaren zereginetan sartzen dira. Lan hori interesgarria da ere bai zeren eta hautatu diren epaibideak zehaztuak baitira. Alderantziz izen berezi horiek bazterturik, jakin behar da Euskaltzaindiak ez duela deus erabaki zubereraren idazteko molde egokiaz, hobeki erranik zubereraren ortografiarekin. Gorago aipatu Bergarako erabakiek euskalki oroendako balio dute. Bainan dakigun bezala salbuespen bat bada aspaldidanik zubereraren idazkeraz, *ü* hizkia erabilia baita [y] ahozkatzen denean. Eta Euskaltzaindiak grafema hori ez du baztertu⁴.

Haatik hogeitaz hamar urtez geroztik bi zuberotar euskaltzainak, idazle batzu, zenbait aditu lan hori lotuak izan ziren eta orai erraiten ahal dugu zubereraren ortografia finkatua dela. « Euskara Batuaren arabiarako grafia berria hedatu da zubereraz ere, Euskaltzaindiak Bergarako Biltzarrean, 1978an, erabaki zuenaren arabera. Logikoa eta errea da grafia berri hau » (Davant, 2001 : 8). Horrek ez du erran nahi zubereraz idazten dutenek denek artoski erabiltzen dutela, bainan erabiltzen ez dutenak guti dira.

1.3 Artikulu horren helburuak

Zuberera euskalki bakoitza bezala ezaugarri lexiko, sintaxiko baita ere fonetiko eta fonologiko batzuen bidez bereizten da⁵. Artikulu horren helburuak dira oraiko zuberotar grafiari buruzko zenbait gogoeta egitea, grafi berri horren mugak argitzea, zuberotar ahoskeraren eta zuberotar idazkera arautuaren arteko loturak aurkeztea. Finkatua den oraiko grafia eta euskalkiaren fonetika, fonologiaren elkarrekilako harremanak marraztuko ditugu.

² Halere ere ber orrialdean Euskaltzaindiak salbuespen zenbait onartzen ditu « linguistika lanetan », « toki jakin bateko euskara den bezala jaso nahi denean », « herri mailako literatur mueta batzuetan » eta bertsolaritzan (1979 : 104).

³ Horri esker adibidez *Ündüreine* herriko sargietako eta irteeretako seinaleak *Ündüreine* eta *Ündüreine* idatzirik ez ditugu gehiago ikusiko, eginik izan den bezala guti.

⁴ Euskalkien ahoskeran [y] bokala onartu du : « ...sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [ü]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan » (1998 : 2, 1. araua).

⁵ Ikus adibidez Zuazo, 1989.

Hortako deskribapen fonetiko-fonologiko bat beharrezkoa da⁶. Laburbilduz eta xehetasunetan sartu gabe, « fonologia » hitzak zer erran nahi duen adierazteko hori da ikerlearen lana : aztertzen duen hizkuntzan bilatzen du zein hotsek balio bat duten, beste zenbaitek ez dute baliorik (adib. [œ] hotsak ez du baliorik euskaraz). Hizkuntzaren balio duten hotsak fonologikoak dira hizkuntza honetan.

Gerla baten piztea ez da gure nahia, baina bai ikustea zertan den duela guti finkatua izan den zubereraren ortografia. Finkatze hori xantza bat da eta idazletarik gehienek onartu dute.

Hizkuntzen ortografia ez dela osoki fonetiko edo fonologiko ezaguna da. Baina ortografia bakoitza hurbiltzen da guti gora behera hizkuntzaren fonetikatik (edo fonologiatik). Dakigun bezala frantsesaren ortografia hurrin da bere fonetikatik. Lan honi esker ikusiko dugu beraz euskarak, hemen hain xuxen zubererak, idazkera fonetiko bat, fonologiko bat duenetz, maiz erraiten den bezala. Artikuluan zehar beraz ikusiko dugu hobekixago zer adiera duen gorago aipatu genuen Davant-en « logika » hitzak (1.2). Alderantziz ez dugu kasu eginen hitzen etimologiari, ez ere zubereraren kondairari.

Junes Casenave-Harigile-n zubererari buruzko 1989ko *Hiztegia Français-Eüskara* eta 1993ko *Hiztegia II Eüskara-Français* baliatuko ditugu, eta bai ere Piarres Charritton-en 1997ko *Hiztegia Dictionnaire* hiztegia, hori konparaketa egiteko zubereraren ortografia « Iparraldeko batua »-ren eretzean⁷. Casenave-Harigile-n hiztegiak hartzen ditut bakarrak baitira oraiko ortografiarekin argitaratuak direnak. Zubererazko aitzineko hiztegi orokorra Lhande-n 1926koa zen. Geroztik lexiko batzu ez ziren argitaratu baizik. Casenave-Harigile-n bi hiztegi horiek zinez baitezpadakoak bilakatu dira beraz, hutsune handi bat baitzen. Zubereraren oraiko ortografiaz lekukoak bilakatu dira. Txomin Peillen-ek dion bezala Casenave-Harigile-n lehen hiztegiak, 1989koaz : « Hiztegi arauemailea da... beraz Züberoeraren idazteko, euskalki horren arauzkatzeko eginga da, ez linguistentzat⁸ » (1989, Aitzin hitza) ; eta horrentzat hartuko dugu artikulu honetan. Halere erran behar da hiztegi horiek leku emaiten diotela euskara batuari, ikusiko dugun bezala, batua zubereratik bereizi gabe⁹.

Beraz, hiztegi horietako grafiazko aukera batzu argitaratzea artikulu honen helburuetarik bat da ere. Baina behin betikotz lerro hauen irakurleak jakin dezan tresna horiek bazter gabeko balioa dutela nerretzat eta zubererazaleentzat.

2. ZUBERERAREN GRAFIAREN BILAKAERAZ

Zubereraren grafiaren bilakaera osoki aurkeztu nahi gabe, aro nagusien idazteko molde batzu aipa ditzagun. Jakina da **Juan deTartas**-en *Ontsa hiltzeko bidea* (1666) lehen zuberotar liburua ez dela¹⁰. Tartasek berak zion : « Ene euskara, eta lengajia eztaikit aprobatia izanen denéz, bai, ala ez, badü orotarik zerbait, Zuberok, Basa-nabarrek, eta Lapurdik eman drauko zerbait, baina ez oro » (1666 – 1975 : 7). Tartasek ezagutzen zituen hizkuntza « guztien

⁶ Zuberotar fonemen aurkezpen orokor batez ikus Coyos, 1999, 2. atala.

⁷ Laburdurak : 1989koa, *Hiztegia* eta 1993koa, *Hiztegia II*. Aitzin solasean Charritton-ek idazten du bere hiztegiak « Eskola Hiztegia » izena duela (XIV), baina azalean *Hiztegia Dictionnaire* ez da baizik deitzen. Casenave-Harigile-k egiten ez duena, Charritton-ek aipatzen du hitzak zein euskalkitik etortzen direla B, G, NB, NG, NL eta Z (zuberera) laburdurak erantsiz (XLV-XLVII), beharra baldin bada.

⁸ Haietaz Lhanden hiztegia egokiago da.

⁹ Horri buruz hori da Junes Casenave-Harigile-k idatzi didana : « Ene Hiztegia II. egin nizün, ez xiberotarra baizik emaiteko, bena ere batua ; hori zen egin zeitaden galtoari ihardesteko : beharrezkoa zela gero eta gehiago irakurten baita batuaz idatzi egünkari, astekari, agerkari eta libürü ere. Arren, prefosta, zerbait baliagarri, ez haatik linguistika lan bezala ».

¹⁰ Ikus atarikoaren XIX-XXII. orrialdeetan Andolin Eguzkitzak egiten dituen Tartasen grafiari buruzko oharra.

orthographien nahasmendu izugarri bat egiten duelako... oso guttitan salbu, ez du /ü/ eta /u/ orthographiaz bereizten » (Eguzkitza, ibid., XX).

Erran behar da **Athanase Belapeyre**-ren *Catechima laburra*... ez dela ere egiazko lehen zuberotar liburua (1696 – 1983)¹¹. Pello Agirrek testu zaharrago bat aurkeztu du 1676ko *Pronus singulis diebus*... **testu anonimoa**, behar bada Belapeyrek idatzirik (*A.S.J.U.*, 1998). Idazleak *ou* digrama erabilzen du /u/ transkribatzeko eta *u* grafema /y/ fonemarendako, *c* /k/-rendako bai ere /s/-rendako *i* eta *e* aitzinean, *ç* /s/ fonemarendako *a*, *o* eta *u* aitzinean, // eta /z/ herskari txistukari ahostunak ez ditu bereizten, herskari hasperen ahoskabeak ez ditu bereizten ere *th* /t^h/ salbu, /h/ hasperena idazten du *h*-ekin, orain bezala *ñ* // fonemarendako ez du erabiltzen bainan *in*, etab. Hots, guti gora behera frantsesaren idazkera. Hiru mendez idazle guztiek egiten duten bezala, hitzaren azken bokalaren hersketa *-a* aitzinean irudikatzen du : adib. *gure+a* > *gouria*, orain *gurea* [gúja].

Bi mende geroago, 1848an, **Archuk** frantsesetikako grafia bat erabiltzen zuen oraino eta badirudi bere grafia ez zela biziki landua : « Archuren testuan erabat ezinezko gertatzen da *u*-ren eta *ü*-ren artean bereiztea, bietarako... <u> grafiaz baliatzen baita... Bokalarreko *-r*-bakunak zubereraz galdu ohi dira... La Fontaineren alegien itzulpen honetan, bilakabide hauei dagokielarik, egoera aski nahasia da » (1848 – 1990, Ricardo Gómez-en hitzaurrean : 16-17).

Hamar urte geroago, **Emmanuel Inchauspé**-k, euskal fonologia kontutan hartuz, zubererarena barne ere, grafia argi eta guti gora behera bikoiztasunik gabea erabiltzen zuen : *ou* /u/-rendako eta *u* /y/-rendako, herskari hasperen ahoskabeendako *ph*, *th*, *kh*, *tt* eta *ll* hizki bikoitzak bustidurendako, *ñ*, *y* // bustiaren orde, *ch* frantsesez bezala // idazteko, etab. (1858 : XI-XII). Jakin behar da lan hori hizkuntzalari batena zela. Frikari txistukari ahostunendako, halerik ere, grafema berizirik ez zuen hautatu eta beraz // ez zuen baizik bereizten *j*-ri esker¹². **Louis Gèze**-k ere bere *Éléments de grammaire basque, dialecte souletin*... liburuan Inchauspé-ren grafia erabili zuen (1873). Horien ondotik, XX. mendeko hastapenean, **Jean-Baptiste Constantin**-ek *u* eta *ou*, *ch*, *ill*, *mb* *nb*-ren orde, etab., erabiltzen zituen (1926 – 1996, Patri Urkizu-ren aitzin-solasean : XV).

Zuberotar grafiaren historia zirriborro labur hau bukatzeko eta oraikoa aztertu baino lehen, aipa dezagun **Pierre Lhande**-k bere hiztegian erabiltzen zituena (1926 : XXXI). Orduko Euskaltzaindiak ortografia onartua zen : *ü*, *u*, *x*, *tx*, *ph*, *th*, *kh*, //, // eta // kontsonante bustiendako marratxo batekilako hizkia, *ñ*, *r* dardakari bakunarentzat eta  dardakari anizkunarentzat. Bi grafema baizik ez ziren faltatzen Iparraldeko euskalkien fonologiari osoki moldatu izateko : zuberotar /z/-ak eta //-ak ez zuten hizki berezirik, jakinez zubereraren bokal sudurkariak ez zutela ere grafema berezirik bokalea + *n* taldeak aparte (adib. *handi* [h^hdi] bainan *ahate* [ä^hte]).

Bere Zuberoko idazle zenduak liburuan, **Jean-Louis Davant**-ek grafia hori eta oraikoa buruz buru ezarten ditu lehen aldikotz argitaratu den **Clément de Jauréguiberry** (1895-1965)-ren « Mort pour la France » testuan, bi grafiez idaztez (2001 : 138-153). Davant-ek dio : « ...lehenik agertzen dut ortografia xaharrean... Zuberera nola behar den ahoskatu dastatuko du..., fonetika hurbilagotik errespetatzen baitu. Baina logikaren arabera da bigarrena, sinplea, erreza » (2001 : 139). Jauréguiberry-k, ordu arte idazle guztiek egiten zuten bezala, hitzen aldaketa fonetikoa markatzen zuten : *eskian* (138) / *esküan* (139, Davant), *emaztiak* (138) / *emazteak* (139, Davant), *onduan* (144) / *ondoan* (145, Davant)¹³... Beherago

¹¹ Ikus aitzin solasean Jean-Louis Davant-ek egiten dituen oharak Belapeyre-n grafiaz (13-18 orr.).

¹² « 23 le S, dans le dialecte souletin, a un son plus doux dans un petit nombre de mots tels que *losa*, *arrosa*, *jesus*, *guisa* (sic) ... 30 le Z a le son du *c* doux du français... dans certains mots tels que *aizina*... le son du *z* français » (1858 : XII).

¹³ Idazteko molde hori ediren daiteke lekuka Patrick Queheille-n aurtengo *Lau Bürü* testuan : *tradizionik* *tradizioneak*-ren orde (14), *nüan* eta *nin* ber orrialdean (28)... Hori sar daiteke Euskaltzaindiak onartzen dituen salbuespenetan, herri mailako literaturan (ikus gorago 2. oharra).

ikusiko dugun bezala, 4. atalean, txandaketa hori morfologia fonetikoan sartzen da : bokalen ahoskatzea kanbiatzen da testuinguruaren arabera, -a aitzinean. Beraz grafia hori fonetikoa da fonologikoa baino.

Gainera ohartzen da Davant-ek beste zenbait hitzen grafia kanbiatzen duela zubereraren oraiko grafiari jarraikiz : *untsa* (138) *ontsa-z* (139) ordezkatzan du, *hun* (144) *hon-ez* (145), *ikhusi* (140) *ikusi-z* (141), *ürhats* (140) *ürrats-ez* (141), *bueita* (144) *boita-z* (145), *ixker* (146) *ezker-rez* (147), etab. Kasu horietan ez dugu ahoskera manatzen duen testuinguru fonetiko berezirik. Ortografia berriak hautu bat egin du, hautu horrek ez du gauza handirik ikusteko zubereraren fonetikarekin edo morfologia fonetikoarekin, baina bai grafia berdintasunaren bidearekin, Euskaltzaindiak agintzen zuen bezala (ikus 1.1). Davant-ek aipatzen zuen erraztasuna da euskara batua irakurtzen badakitenentzat. Gehiago aztertu gabe, hori ondoko ataletan egingen dugu, ohar daiteke ere zubereraren grafia berria « logikoa »-ren, batasunaren bururaino ez dela joaiten osoki : adibidez idatzi behar genuke *heldü* eta ez *heltü* [h⁴lty] onartua den bezala, *saldü* [s⁴áldy] edo *bildü* [bilyd] idatzen den ber ; *egüngo* eta ez *egüngo* [eg⁴üko] egiten den bezala ; *gazna* [gazná] onartua izan da *gasna*-ren edo *gazta*-ren ordezkari, etab.

Henri Gavel-en iritziaz, « substituer purement et simplement à cette orthographe traditionnelle celle qui est en usage pour le labourdin..... serait le défigurer, en lui donnant l'aspect d'un parent pauvre que l'on aurait affublé d'un costume fait pour un autre membre de la famille » (1960 : 213), lotsa hori egiaztatu da pixka bat. Horrek ez du erran nahi zubererak bere ezaugarriak galdu dituela, jakinez ortografia bat hitzarmen bat baizik ez dela. Baina, ortografia berri horrengatik, zuberera beste euskalkietarik eta euskara batutik bereziki hurbildua da bere itxura berriaz. Jean-Louis Davant-ek oraiko grafiaz idatzen du : « Berria, Gau-Eskolek eta Zuberoako ikastolek batuari hartu die ta (sic) zubereraren ezarri. Logikaren arabera den baina zuberotar ahoskeratik urruntzen da zinez, hau ez baita batukoa » eta « irakur errexa da, bereziki zuberotarrak ez direnentzat. Baina zuberera bere fonetikatik urrun dezake. Haren eta batuaren arteko euskalki berri bat ote digu sortuko » (1993 : 41). Nere ustez egia da grafia berri honek zuberera ere kanbiatuko duela zeren eta hiztun gazteek eskolan ikasten baitute zuberera familian eziez. Eta erran nezake « logika » hitz hori ez dela hain egokia, grafia hori « bateragarria » dela lehen lehenik.

Baina iritzi hori gehiago azaldu gabe, ikus dezagun zein diren gaurregungo grafemak, hizkiak eta horiekin joaiten diren fonemak.

3. OHAR BATZU ORAIKO ORTOGRAFIATZ : FONEMEN ETA GRAFEMEN ARTEKO ELGARRIZKETAK

Zubereraren fonemak eta haien grafemak ondoko bi tauletan aurkezten ditugu. Ikusten den bezala, zenbait fonemak bi idazteko manera baditu. Erran behar da ere bokal sudurkariak ez direla beti markatuak. Alderantziz, fonema batzuek ber grafema badute. Orokorki oraiko ortografia sinplea da, Davant-ek erraiten zuen bezala (ik. 2). Baina ahosko mintzairarekilako harremanak argitu behar ditugu erabaki aitzin, ikusteko ere « logikoa » denetz.

3.1 Zubereraren fonemak eta horien grafemak

Bokalak

Grafema	<i>a</i>	<i>e</i>	<i>i</i>	<i>o</i>	<i>u</i> <i>o</i>	<i>ü</i>	<i>a</i> <i>an</i>	<i>e</i> <i>en</i>	<i>i</i> <i>in</i>	<i>o</i> <i>on</i>	<i>u o</i> <i>un on</i>	<i>ü</i> <i>ün</i>
Fonema	/a/	/e/	/i/	/o/	/u/	/y/	/ã/	/ɛ̃/	/ĩ/	/ɔ̃/	/ɯ̃/	/ỹ/

Kontsonanteak

Grafema	<i>b</i>	<i>d</i>	<i>dd</i>	<i>f</i>	<i>g</i>	<i>h</i>	<i>j</i>	<i>k</i>	<i>l</i>	<i>il</i> <i>ll</i>	<i>m</i>	<i>n</i>	<i>in</i> <i>ñ</i>	<i>p</i>	<i>r</i> <i>rr</i>	<i>s</i>	<i>t</i>	<i>it</i> <i>tt</i>	<i>x</i>	<i>z</i>
Fonema	/b/	/d/	/ɸ/ ¹⁴	/f/	/g/	/h/	/j/	/k/ /kh/	/l/	/ll/	/m/	/n/	/ɲ/ /pʰ/	/p/	/r/	/s/	/t/ /tʰ/	/tʰ/	/x/	/z/

3.2 Bokal sudurkariak : //, //, //, //, //, //

Bokal sudurkariak fonetika ingurumen desberdinetan agertzen dira eta ondorioz horien ahoskera desberdina da pixka bat ingurumenaren heinean. Horiek dira mota ezberdinak :

- **Bokala + kontsonante sudurkaria** Atzeranzko asimilazioa /n/ aitzinean : adib. *handi* [hdi], [handi] eziez. // ~ /o/ oposaketa fonologikoaren adibidea : /htto/ *honto* « gozoki » ~ /oddo/ *onddo*. Hitzaren azken silabako /n/ ahoskatzen da : *egün* (85) [égyn]. Ortografiak sudurkaritzea erakusten du *n*-ren bidez. Frantsesaren historian gertatu zen bezala, bokala sudurkaritzen da /n/ kontsonante apiko-alabeolare sudurkariaren aitzinean.

- **Kontsonante sudurkaria + bokala** Aurreranzko asimilazioa /n/ edo /m/ gibelean : *ama* [ɔmã] edo [áma], *arrano* [aran]. Ingurumen fonetiko honetan sudurkaritzea ez da beti egin eta ortografiak bokal sudurkariak ez ditu erakusten.

- /h/ **ondoan** Adib. *ahate* [ãhte] latinetik *anas*, *anitis* ; *xahü* [ʃh] « xahu, garbi ». Gisa berean, kontestu honetan sudurkaritzea ez da beti gauzatzen eta ortografiak ez du seinalatzen. Alderantziz *ohe* [óhe] sudurkaritzerik gabe ahoskatzen da.

- **Azken silabaren bokalaren sudurkaritzea** Adib. *karru* / *karroi* (*Hiztegia II* : 243) [k^har] edo [k^harú] « horma, karroin » baina *karruntatü* [k^haruntáty] « karroindu » kontsonante sudurkariarekin ; biarnesetikako maileguetan : *arrazoin* / *arrazu* (30) [araz] « arrazoin » edo [arazú] (ikus ere Lafon, 1962 : 88). Goiko oharrak kasu honetan ere aplikatzen dira eta ohar daiteke zubereraren ortografian *-oin* taldeak *-u* [] edo [ú] emaiten duela.

Bokal sudurkariekin ez dut uste beste grafema baten asmatzeak balio duela. Pentsa dezakegu bokal sudurkari hiru azken motak galduko direla, frantsesez ez baitira ahoskatzen kontestu horietan. Erran behar da ere ahoskatze txandaketa badela hiztunen arabera, sudurkaritzea automatikoa ez delarik. Asma dezakegu sudurkaritze fonologikoa lehen sudurkari motarentzat ez dela baizik izanen denborarekin, kontsonante sudurkariaren galtzeak aitzineko bokalaren sudurkaritzea erakartez.

3.3 Aitzineko bokal ezpainkaria : *ü* = /y/

Sarreran erran dugun bezala, /y/ fonemak hizki berezi bat badu, *ü*¹⁵. [y] hotsa Oihenart-en garaian, XVII. mendean, erabilia zen Zuberoan, berak aipatzen duen bezala eta Leizarraga-ren garaian ere René Lafon-en ustez¹⁶.

¹⁴ Herskari sabaikariendako irakurgarrigoak diren [] eta [] marka fonetikoak hautatuko ditut nazioarteko alfabeto fonetikoko [ç] et [ɲ] markak eziez.

¹⁵ Jean-Baptiste Constantin idazleak *u* hizkia erabilten zuen *ü*-ren ordez (1926 - 1996).

¹⁶ « ...on peut tenir pour certain que *ü* existait déjà en souletin » (1962 : 83). Erran nahi du XVI. mendean. Lafon-ek zion : « Ainsi, si *ü* est devenu en souletin un phonème distinct de *u*, dont il était d'abord une variante combinatoire, c'est qu'il s'est formé de nouveaux *u*, les uns provenant de *o* devant nasale, les autres, plus récents, provenant de la réduction du groupe *úa* » (1962 : 92).

/y/ baizik ez da erabilten testuinguru zahar batzutan /u/-ren ordezt, bainan bai ere frantsesetikako maileguetan /œ/-n ordezt, azken fonema hori euskal fonologian ez delakotz sartzen : frantsesez [traktœr] *tracteur*, zubereraz [traktýr] bilakatzen da ; frantsesez [bœr(ə)] *beurre* « guri », zubereraz [býra]...

/y/ fonemarekin ez da « fonema zalantzarik » edo « fonema gorabeherarik » (ikus 4.1) : /u/ edo /o/ ez dira nehoiz ahoskatzen /y/-ren ordezt. Hona oposaketa fonologikoaren adibide bat : /hʏr/ *hür* (bat. *hur*) ~ /hur/ *hur* (bat. *ur*) ~ /hor/ *hor*.

3.4 Gibleko bokal ezpainkaria : o = /o/ eta /u/

2. atalaren bukaeran aipatzen genuen oraiko grafia bategilea gauzatzen da /u/ bokal ezpainkariarekin. Kasu batzutan [u] ahoskatze denean o grafema erabiltzen da u-ren ordezt : *moldatü* (*Hiztegia II* : 309) [muldáty] ; *tronpatü* (416) [tr♦œʎ(n)páty], Etxartek *trunpatü* (2002 : 22) ; *lano* (265) [lanhú] ; *ohoin* (337) eta *uhoin* (429) [uhúœʎ]... /u/ ~ /o/ oposaketa fonologikoa da : /lu/ *lu* « baldoki » (*Hiztegia II* : 279 « lo 1) tempe ; cf. *lu* ; 2) *sommeil*... ») ~ /lo/ *lo*.

Ez da txandaketarik hitz horiekin, [u] ahoskatzen da eta ez [o] ahozko mintzairan. /o/-tik /u/-rako aldeketak hori ez da oraikoa¹⁷. Nere ustez u idatzi behar genuke hitz mota horrendako, beste euskaldunek ahoskera jarraitzen duen grafia hori uler lukete ere trabarik gabe.

On / hon / hun. *On* hitza idazteko Casenave-Harigile-k hiru grafia eskaintzen ditu *Hiztegia II*-n : *hun* (191), *hon* (187) eta *on* (342). Batasunari jarraituz *on* hirugarren grafia, h-gabekoa, hautatu behar luke ; zubereraren bidean ibiliz *hun* izan daiteke, [hun] ahoskatzen delakotz. *On*-etikako eratorpenean erran behar da *ontsa* (345) badugula, [úntœa] edo [♦œʎtœa] [h] gabe ahoskatzen dena. *Hunki* ez da emanik, *honki* (188) eta *ongi* (344) baizik, [h♦œʎki] ahoskatzen den ere. Etxart-ek *hunki* idazten du (2002 : 8).

3.5 Leherkari gangarkari hasperen ahoskabea : /h/ h eta /n/, /œʎ/, /l/, /r/ + /h/ bikoteak

• /h/ *h* Dakigun bezala *h* grafema Euskaltzaindiak onartua izan da, euskal alfabetoko hizki bat da. Zuberoan /h/ egiazko fonema bat da, frantsesan ez izanik ere, eta ahoskatzea ez da galtzen. Bere *Hiztegia II*-n, usaiako aurkezteko manera erabiliz, Casenave-Harigile-k bi ortografia eskaintzen ditu, batuarena eta zubereraren bat : adib. *hur* zubererarena (192) eta *ur* batuarena (433), jakinez [hur] ahoskatzen dela. Hobe ere, *aize* (12) emaiten ditu eta *haize* (bat.) (162), [ájse] ahoskatzen dena. Aldi honetan h- gabeko grafia berezi bat badugu, *aize*, Zuberoako ahoskerari egokia dena.

• **Kontsonantea + /h/** «*H*-rik ez da idatzitako itxitura osoa duten kontsonanteen ondoan...Baiona-n erabaki zenez, ezta ere bestelako kontsonanteen hatzean: *erho*, *belhar*, *unhatu* eta horien gisakoetan » (Mitzelena, 1968 : 207).

Kasu honetan azpimarratu nahi dut silaba egitura ez dela ongi aztertua izan. Silaba mozdura hasperena baino lehen egiten da eta beraz kontsonantea eta /h/ ez daude ber silaban. Herskari hasperen ahoskabeen kasuan ez gaude, maiz erraiten den bezala : /p^h/, /t^h/, /k^h/ fonemekin hasperena herskadurari lotua da (ik. 3.6). Orain aztertzen dugun kontestuan, kontsonante baten giblean, /h/ ez da galtzen ari, dirudienez. Alderantziz /p^h/, /t^h/, /k^h/ fonemen hasperena ez da beti gauzatua.

• /nh/ *n* : *lano* (*Hiztegia II* : 265) [lánho] ahoskatzen da.
 • /œʎh/ *ñ* : *eine* (87) « neke », [œʎœʎhe] ahoskatzen da eta ez [œʎjne].
 • /lh/ *l* : *alor* (17) [álhœr] ; *elesta* (89) [elhœʎœta] ; *ilun* (bat.) (209) / *ülün* (431) [ýlhyn]. *Zal(h)e* (459) [sálhe] (Etxart-ek *zalhe*, 2002 : 96) eta *zal(h)ezal(h)ea* (460) izenen h-a

¹⁷ René Lafon-ek dio : « La tendance à changer o en u s'est manifestée avec plus de force qu'ailleurs en bas-navarrais oriental et en souletin. Elle a dû affecter d'abord les o suivis d'un n ou d'un m... » (1962 : 91).

mako artean idatzia da. Aterabide hori ez da hain argi : erran nahi ote du bi grafiak egokiak direla, *h*-ekin eta *h* gabe ?

- **/rh/ r :** *marranta* (296) [marh^hta], *ürre* (436) [ýrhe]... Kontsonante sudurkari bakuna ahoskatua ez baita (ik. 3.10), [h] ahoskatzen da idatzia ez izanik ere : *er(h)i* (100) « behatz » [éhi] ~ *eri* (100) [ɛji] ; *ero* (101) [ɛ^hrho] ~ *eho* « hil, erail » (86) [ɛ^hho] ; *orit* (349) [óhit], Etxart-ek *orhit* (2002 : 66) ; *soro* (395) [s^hóho]...

- **Diptongoa + /h/ :** /nh/, /ɔh/, /lh/ eta /rh/ bi fonema taldeekin *auher* « alfer » (37) [áwh^hr]edo *oihan* (357) [ɔ^hjhan] kasuan bezala gaude. Diptongoa eta /h/ ez dira ber silaban. *Auher*-ren edo *oihan*-en grafiek ahoskatzea errespetatzen dute.

Oraiko zubereraren ortografian, /n/, /ɔh/, /l/ edo /r/-n ondorengo /h/ fonema ez da markatua, erran nahi baita /nh/, /ɔh/, /lh/ eta /rh/ taldeetan. Nere iritziz izan behar daiteke, diptongo ondoan eginik den ber, *alhor*, *elhesta*, *lanho*, *ülhün*..., lehen idazten zen bezala, oposaketa ageraraziz : *ala* juntagailua ~ *alha* (Charritton : 10), *aran* « ibar » ~ *arhan* fruitua, *eri* ~ *erhi* «behatz». Hemen ere, zuberotar ez diren euskaldunek ahoskera jarraikitzen duen grafia hori uler lezakete trabarik gabe.

3.6 Herskari hasperen ahoskabeak : /p^h/ p, /t^h/ t, /k^h/ k

Lafonek eta Mitxelenak ez zuten ohartu herskari hasperen ahoskabeak egiazko fonemak direla zubereraren, bereziki duela guti mailegatuak izan diren hasperenik gabeko hitzei esker¹⁸. Bikote edo hirukote batzu badira : /bala/ *bala* (arma) ~ /p^hala/ *pala* (lanabes) ~ /pala/ *pala* (pilota) ; /mót^ho/ *moto* « motto, mototx » ~ /moto/ « motozikleta » ; /t^harta/ *tarta* « sasi » ~ /tarta/ *tarta* (pastiza) ; /k^haráty/ *karratü* « kerra » ~ /karáty/ « karratu » ; /māk^háty/ *mankatü* « zauritu » ~ /mākáty/ « hutsegin », etab.

Oraiko zubereraren idazkeraz Euskaltzaindiaren araua onartua izan da : « *H*-rik ez da idatzitako itxitura osoa duten kontsonanteen ondoan (*aphez*, *athe*, *ekharri*, etc.) » (Mitxelena, 1968 : 207). Halarik ere, Zuberoako herri izen batzutan Euskaltzaindiak hasperenaren idaztea onartu du, estakuru emaitzez izen bereziak direla : *Atharratze*, *Atherrei*, *Ithorrotze* (ikus Euskaltzaindia, 1999 : 7 eta 15)¹⁹. Gorago erran dudaz bezala, finkatuak izan diren *Ainharbe*, *Arhane*, *Olhaibi*, *Zunharre*, *Zunharreta* grafiak ez dira ber kasuan fonologiaren ikusmoldeaz, bi fonema direlaketz (kontsonantea + h) (ik. 3.5).

/p^h/, /t^h/ eta /k^h/ herskari hasperen ahoskabeak galtze irriskuan daude. Hasperena ez idazteko argudioa izan daiteke ez dela beti ahoskatzen, « fonema zalantza » batengatik desagertzen ari dela (ikus 4.1) : hitzaren arabera zenbait hiztunek herskaria hasperen gabe ahoskatzen baitute, bereziki gazteek. Adib. : *piper* « biper » [p^híp^hr] edo [píp^hr] ; *arto* [árt^ho] edo [árto] ; *ikasi* [ik^há^hi] edo [iká^hi]... Eta ez baldin badira idazten, segur da herskari hasperendunak gero eta gehiago galduko direla, kontutan hartuz bigarren atalean azpimarratzen genuena : gazteek zuberera eskolan ikasten dutela familian eziez.

3.7 Sabaikariak, kontsonante bustiak : /ɔ̃/ ñ / in, /ɛ̃/ il / ll, /ɪ̃/ it / tt, /ɔ̃/ dd

¹⁸ Ikus Coyos : 1994. Lafonek zion : « En basque, à la sonore s'oppose, suivant les parlers et les mots une sourde aspirée ou une sourde non aspirée : jamais les deux... les occlusives sourdes aspirées et les sourdes non aspirées ne constituent pas des phonèmes, mais des variantes phonétiques » (1948 : 60). Haren ondotik Mitxelenak erran lezake : « Tenemos pues el hecho teóricamente interesante de un rasgo que reúne todas las condiciones necesarias para diferenciar significados, sólo que al parecer distingue ninguno » (1961 - 1985 : 208, 2. oharra)

¹⁹ Txomin Peillenek hola argitzen zuen : « Il est regrettable que le basque qui se parle désormais de plus en plus avec l'accent et la phonétique française ou espagnole ait perdu presque partout sa dernière originalité, les consonnes *ln*, *rh*, *nh*, *ph*, *th*, *ñh*, *llh*, *kh* absentes des autres langues européennes. Ce phénomène est hélas irréversible mais qu'au moins les noms de lieux en gardent le souvenir » (2000). Bainan, hola aritzez, ortografian ez onartzeak horien desagertzea zalutzen du. *Promus*... lehen zuberotar testuan (1676) *th* idatzia zen bainan ez *ph* eta *kh* (*ASJU*, 1998, XXXII-1 : 8).

Kontsonante bustiei buruz hori da Euskaltzaindiak erabiki duena laburbilduz : « 1. Euskaltzaindiak ontzat hartzen ditu *ñ*, *ll*, *tt*, *dd* eta *tx* kontsonante palatalen grafiak balio adierazkorra duten kasuetan, hala nola *andereño*, *haurño*, *ñabar*, *llabur*... *Maddalen*... hitzetan agertzen direnak. 2. Egituraren bidez, aurreko *i*- bokala dela medio, leku batzuetan sortu diren palatalizazioetarako, ordea, *-in-*, *-il-*, *-it-* eta *-ind-* erabili behar dira, palatalizaziorik egiten ez den eskualde eta alderdietan bezalaxe, hala nola *baina*, *mutila*... eta abar... 3. Halaber erdaritaratikako hitzetan, despalatalizazioaren bidez sortu den grafia ontzat harturik, hala nola *Espainia*, *gaztaina*, ... 6. Ortografia lege hauek berdin balio dute edozein euskalkitan eginikako izkribuetarako ere... » (Euskaltzaindia, 1979 : 91-92). Erabaki horiek osoki aplikatuak izan dira oraiko zubereraren idazkeraz.

• **/ɕ/ eta /in/ : fonema ezberdinak** Bokal ondoko [in] bikotea [ɕ] ahoskatzen da Zuberoan. Zubereraz hots bakun bat badugu, [ɕ] sudurkari sabaikaria. Adib. : *artzain* (*Hiztegia II* : 32) [artsáɕ] eta ez [artsájɛn] ; *ohoin* (337) [uhúɕ] eta ez [ohɛɔɛjn] ; *üinürri* « xinaurri » (429) [yɕhýri] eta ez [yjnyri]. Bustidura hori, [in] > [ɕ], aspaldin gauzatu daiteke.

Bainan oposaketa fonologiko bat da zeren eta /ɕ/ egiazko fonema bat da zubereraren, /in/ bi fonemen bikotea delarik : /mína/ *mína* « min (mugatua) » ~ /míɕa/ *miña* (*miñaberje*) « mahasti » ; [hájna] *harena* (izenordaina) ~ [hájɕa] *hariña* « hondar ». *Txardina* « s ardina » [tʃardína] edo [ʃardína] ahoskatzen da eta ez [tʃardíɕa].

Kasu honetan idazteko molde bakar bat badugu, *in*, [ɕ] eta [in] bi hots eta fonema desberdinentzat.

• **ñ grafemaz** Euskaltzaindiak bustiduraren idaztea ez du onartu Zuberoako herri batentzat baizik, *ñ* erabiliz : *Urdiñarbe*. Salbuespen horren argibidea hona da : « Ñ galtzen ez düan bakoitza *Urdiñarbe* da, busti gabeko formaren (*Urdinarbe*) ahoskeratik saihesteko » (Euskaltzaindia, 1999 : 6). Eta beraz ere **Urđinarbe* grafia saihesteko nere ustez.

Izen arruntei buruz, ohartzen da *ñ* onartua dela *Hiztegia II*-n zenbait hitzen lehen hizkiaz 331. orrialdean : *ñabar*, *ñabo*..., *-ñi* atzizki tipitzailea erabilia da ere. *Urdiñarbe* kasuaz bezala, *i* ondoan *ñ* hautatua da *in*-en ordeaz : *erregiña* (104) « erregina », *espartiña* « espartin » (111), *iñazi* « tximist » (209) [iɕhási], *ttipiñi* (331)... Bestenaz **erregiina*, **espartiina*, **iinazi*, **ttipiini* genituzke²⁰. *li* digrama ez da onartua zubereraz hala nola batuaz. Aldi berean ohart dezagun *Espainia* (111) [④⓪páɕɛra] ahozkatu behar lukela idazkera jarraikiz eta ez [④⓪páɕa] egiten den gisaz.

Laburbilduz, kontestuaren heinean bi grafema desberdin erabiltzen dira ber fonemarentzat /ɕ/, *in* edo *ñ*.

/ɕ/, /ɕ/ eta /ɕ/ ondoko kontsonante bustientzat ber egoera da. Mitxelenaren eskabidea onartua izan da : « Hobe, ordea, *il*, *in* idaztea soil-soilik, aski bait litzake hori edozein ohar dedin *i* hori dela medio, bere euskalkian, hurrengo *l* eta *n* bustiak direla... » (1968 : 208). Azpimarratu behar dugu ere kontsonante sabaikari horiek, hots txikikaritako erabiliak izanik ere, egiazko fonemak direla.

• **/ɕ/ *il* / *ll*, alboko sabaikaria** /ɕ/ alboko sabaikaria idazteko bi grafema baditugu, *il* eta *ll*. *ll* zenbait hitzen lehen hizkiaz onartua da. Adib. : *lloba* (206) / *iloba* (287), [ɕóba] ahoskatzen dena ; *llabür* (*Hiztegia II* : 287) eta *labür* (262) [ɕábyr] ez da baizik ahoskatzen. *lloba* bigarren grafia hori irakur daiteke [ilóba] eta [ɕ] ~ [in] oposaketaz bezala, [il] ~ [ɕ] oposaketa fonologikoa badugu. Adib. : *ilar* (206) [ílar] ahoskatzen da eta ez [ɕar] edo [ɕhar].

• **/ɕ/ *it* / *tt* herskari sabaikari ahoskabea** Beraz /ɕ/ (nere idazteko manieraz) sabaikari ahoskabea idazteko, /c/ nazioarteko fonetika alfabetoan, bi grafema baditugu ere, *it*

²⁰ Alderantziz, zubereraz *arrain*-en idazteko, Pierre Lhande-n a *Ṛrain* grafia hiperzuzenketa forma bat daiteke : *i* + ④ (1926 : 70).

eta *tt*, fonema batentzat /ʃ/²¹ eta *it* grafema bikotea bi fonemarentzat, /ʃ/ eta /it/. *Aita* [ájta] ahoskatzen da eta ez [áʃa].

• **/ʃ/ herskari sabaikari ahostuna** Herskari sabaikari ahostunak, /ʃ/ nere idazteko manieraz, grafema bat baizik ez du, *dd*. /ʃ/ ~ /d/ oposaketaren adibide bat : *onddo* (343) [oʃʃo] ~ *ondo* (343) [ondo]. Alabaina *id* digrama ez da onartua izan sabaikaritzea markatzeko, « logika »-k manatuko zuen arabera. *Dd* hori hitz leku oroetan ahoskatzen da, hitz bukaeratik kanpo²².

• **Sabaikarien idazkeraren erraztea** Sabaikari horiek egiazko fonemak dira, balio adierazgarria dutelarik. *Ñ* eta *tt*, *dd*, *ll* digramak ez dira onartuak hitz leku oroetan, aspaldidanik erabiliak baldin badira ere. Busti gabeko formaren ahoskeratik saihesteko hautatuak dira : *lillüra* « lilura » (278) [ʎiʎýra] eta ez *iliilüra*, *ttattit* « mutu eta higitugabe » (471) [ʃaʃít] eta ez *itaitit*,... Bainan, ikusi dugun bezala, irakurtze nahasketa kasu batzu badaude oraino.

Beraz, nere iritziz, zubereraren ortografia argiago eta sinpleago batetarantz joaiteko *ñ*, *ll* eta *tt* behar genituzke erabili kasu oroetan [ʃ], [ʎ] eta [ʃ] idazteko, *dd*-z egin den bezala.

3.8 Frikari txistukari ahostunak : /z/ z, /ʃ/ s, /j/ j

/s/ eta /ʃ/ frikari txistukari ahoskabeak eta /z/, /j/ frikari txistukari ahostunak ez dira bereizten hizkien bidez : *z* erabilia da /s/ eta /z/ fonemak idazteko, *s* /ʃ/ eta /j/ fonemak idazteko. Haatik /j/ txetxekari ahostunak bere hizki propioa badu, *j*, eta beraz /j/ txetxekari ahoskabeak berea ere, *x*.

Ohartzen ahal da grafia berezi bat onartua izan dela zubereraz zenbait hitzentzat : *gazna* (140) [gazná] eta *gazta* (140, bat.), *gasna*-ren ordeztu, ber gauza *ezne* (119) [ʎzné] eta *esne* (111, bat.), bi izen oxitono horiek txistukari hozkaria badutela euskalkian.

/s/ eta /z/ horzkariak, /ʃ/ eta /j/ apiko-albeolareak (« rétroflexes » hobe errana, mihia itzultzen baita), /j/ eta /j/ txetxekariak egiazko fonemak dira zubereran. Adib. : *sapata* (461) /sapáta/ ~ *zaparta* (461) /zapárta/ ; *xorati* « zoratu » (451) /ʃoráty/ ~ *jorati* (234) /joráty/. Haatik ez dut uste grafema berezi baten asmatzeak balio duela /z/ eta /j/-rentzat. Zubereraren idazkeraren historioan zehar ez bait dira sekula idatziak izan grafema berezi batez, [z] eta [j]-ren ahosdura kontestuala baita zenbait aldiz ere : *ikasi* (204) [ik^háʃi] bainan *ikasle* (204) [ik^háʃle], *balios* « baliotsu » [baljúʃ] bainan *baliosa* (mugatua) [baljúʃa]... Erran behar da ozenketa hori automatikoa ez dela : *Nola* « haiz » *hiz* [his] ? *Ontsa hiza* [hísa] ?

3.9 Txistukari afrikatuak : /ts/ tz, /tʃ/ ts, /tʃ/ tx, /dʃ/ j

/ts/ tz, /tʃ/ ts eta /tʃ/ tx horskari ahoskabe afrikatuak maiz erabiltzen dira zubereraz, egiazko fonemak dira eta hiztunek ez dituzte nahasten, zaharrek bederen. Adib. : *bakoitz* / *bakoitz* (*Hiztegia II* : 45) [bák^hʃtʃ] eta ez [bakʃʃtʃ] ; *hanitz* / *hanitz* (165) [hánitʃ] eta ez [hánits], *haritz* / *haritz* (165) [hajtʃ] eta ez [haríts], etab. Zergatik ez hemen -tx digrama baizik ezartea edo bi ortografiak onartuak baldin badira ez aipatzea -tx dela zuberarena ? Zuberotar ez diren euskaldunek errazki konpreni lukete.

Zenbait mailegutan /dʃ/ txistukari ahostun afrikatua ahoskatzen da frantsetikako *x* [ks / gz]-ren ordeztu : *examen* « azterketa » [edʃamʃn] ; berdin *lanjer* « galbide » [lādʃʃr]. Mailegu mota horiek emanik ez dira *Hiztegia II*-n²³. Grafema berezi baten asmatzea behargabekoa daiteke.

²¹ Txomin Peillen-ek, adibidez, *Petiarra* idazten du (2001 : 3) Zuberoko eskualdeaz, Euskaltzaindiak *Pettarra* onartu duenean (1999 : 23), [peʃára] eta ez [petjára] ahoskatzen dena.

²² Mitxelenaren eskabidea ez da onartua izan : « Ba dirudi, beraz, kontsonante-ondoan *dd*-ren ordeztu ere erabil ditekela, beste aldekoek egiten duen gisan : *onjo* = *onddo* » (1968 : 208).

²³ Charritton-ek *lanjer* emaiten du (1997 : 329), *balios* ere (29).

3.10 /r/ ~ /rr/ : dardakarien oposaketaz

Gaurregungo zubereraren iduri du /r/ eta /rr/-ren arteko oposaketa neutraldua dela leku oroetan : hitz hasieran dardakaririk ez baita agertzen mailegu batzuetarik kanpo (adib. *runt* « biribil » [runt]), hitz barnean bokal arteko /r/ bakuna ahoskatzen ez delakotz (*hari* [haj]) eta hitz bukaeran ere hitz oposaketarik faltaz.

Badirudi ahoskatze desberdintasunik ez daitekela hitzen dardakarien artean : adibidez *har* [har], dardakari bakunarekin, eta *harri* [hár(r)i], dardakari anizkunarekin. Bereizketa hori galdua da. Dardakari anizkuna aipamen azkartzeko tresna bat da bereziki, perpausari bizi emaitako.

4. MORFOLOGIA FONETIKOAZ ETA LEXEMEN GRAFIAZ - AHOZKO MINTZAIRA : PERPAUSEAN DIREN HITZEN ORTOGRAFIA

4.1 Hitz baten idazkera desberdinak- Adiera baten hitz desberdinak

• Zubererarena eta batuarena

Ikusi dugun bezala 3. atalean zehar, bere *Hiztegia II Eüskara-Français*-n Junes Casenave-Harigile-k zuberotar eta batuazko grafiak emaiten ditu hitz batentzat, edo « Iparraldeko batua »-zkoa bederen.

Halaber bi edo hiru jatorri ezberdinezko hitz emaiten ditu zenbait adierentzat : *larunbat* (*Hiztegia II* : 268) emanik da erabilia ez izanik ere, baina bai ere *neskanegün* (326) zuberotar formetarik bat ; *neskenegün* [n⁴Ⓢkenégyn] beste ahoskera mota bat ez da edireiten (/a/ eta /e/ arteko fonema zalantzaren ondotik). *Lore* (281) eta *lili* (277) emanik dira : lehen forma ez da erabilia Zuberoan.

Batzutan Zuberoako hitza ez da emanik, *arramaitz* (erromanikotikako aurrizkiarengatik segurki), eta bai batuarena, *ekain* (87) ; halaber *arrapostü* (Charritton *arrapostu*) ez da emanik eta bai *erantzüte*. Alderantziz hitz arrunt batek, *ardu* (25) [ardü] adibidez, bere « batua »-zko formak ez ditu : *ardo*, *arno* ; halaber *zieta*-rekin (469), *plater* (369) emanik da baina ez *azita* edo *azieta*²⁴.

Ber jatorrizko hitzekilako adibide: *arrazoin* (bat.) eta *arrazu* (30) emanik dira (Etxartek *arrazu*, 2002 : 64), ber definizioarekin, baina bigarrena baizik ez da ahoskatzen [arazü] edo [araz⁴Ⓢ] (ikus 3.2). Halaber *baino* (44) (bat.) eta *beno* (56) [béno] hitzarekin : bigarren ahoskatzea erabilia dena da eta ez *[bájno] edo *[bajný]²⁵ ; berdin *huin* (191) eta *oin* (339) (bat.) : [hu⁴Ⓢ] ; *ilun* (207) (bat.) eta *ülün* (431) : [ýlhyn] ; *mende* (300) (bat.) eta *mente* (301) : [m⁴Ⓢte]. Hitzunen arabera beste ahoskatze horiek « manexak » dira. Batzutan forma arrunt bat falta da : *üili* [ý⁴Ⓢy] ez da emana baina bai *üili* (429) eta *uli* (431) (bat.). Beheragoko lerroaldeetan ikusiko dugu laburzki zein morfologia fonetiko kontesturengatik hitz horien zuberotar ahoskera gertatzen den.

Zenbaitetan, hitzaren ondian cf. laburdurak irakurlea bigarren formara itzularazten du. Adib. : *berdin* (57) « semblable, égal ; cf. *bardin* », erran gabe *bardin* (47) [bárdin] « 1) égal ; 2) également ; 3) lisse, uni », dela zuberotar ahoskera. Alderantziz, zenbait aldiz bi formak emanik dira cf. laburdura gabe : *eüskara* (115) eta *üskara* (439), [Ⓢ⁴Ⓢká] ahoskatzen dena eta ez [Ⓢ⁴Ⓢkará]. *Eüskara* grafiarekilako eratorpena aberatsa da 115. orrialdean ; aldiz *üskara*-tikako emanik diren hitzak guti dira, azken hori zuberotar forma izanik ere. Halaber *hur(a)* (192) : « eau ; cf. *ur* ; *oro hur* : tout trempe » eta *ur(a)* (433). *Urte* (438) eratorpena emanik da definizio horrekin : « 1) année ; 2) inondation », *hurte* (193) « 1) déluge ; 2) crue » emanik

²⁴ Lhande-k *zieta* (C.) emaiten du, orokorra bezala (1926 – 1938 : 1086).

²⁵ Davant-en 1983ko hautua hori zen : « *El*-ren ordeztu *AI*, beste eüskalkiek *AU* dien (*sic*) aditz formetan : dait (daut), eta ez deit... ; bai eta baina, baino (bena, beno)... beste eüskalkietan bezala » (1696-1983, 18). Kasu hauetan bi formekin Cazenave-n hautuak zuberotar ahoskatzeari leku emaiten du. Ez da sekula ahoskatzen [dajt] baina [d⁴Ⓢt] ; Casenavek *deit* emaiten du (*Hiztegia II* : 524).

delarik ere. Jakinez [hur] ahoskatzen dela zubereraz eta ez [ur], *hurte* grafia egokia daiteke *urte* [úr^he] izenarekilako bikoiztasuna kenduz.

Zenbait hitzekin hiru grafia izan daitezke. Adib. : *alkar* (17) « cf. *algar* eta *elkar* ». *Alkar* [álk^har] ahoskera arruntena definiziorik gabe da ; beste biek aldiz bat badute : « mutuellement » (*algar*, *elkar*), « l'un l'autre, les uns les autres » (*elkar*).

Egin ondoan errexago da noski bainan hitzaren ondoan (Z) zuberera edo (ahos.) ahoskera, (bat.) batua edo (NL) nafar-lapurtera laburdurekin hobekixe aurkeztua izanen ziren hiztegi horretako hitzak, batuaren ortografien emaita ere hautatua izanez geroz. Zein diren zuberotar, nafar-lapurtar, hots Iparraldeko akoskera desberdinak jakiteko Lhande-n hiztegia ordezka-ezina da oraingoz.

• Zuberoako ahoskatze desberdinak

Gorago nabaritu dugu Zuberoan berean zenbait hitzek ber ahoskera ez dutela hiztunaren arabera edo lurraldearen arabera. Eta hori maiz gertatzen da. Adib. : *arrastiri* (*Hiztegia II* : 29) « arratsalde », bainan [ari[Ⓢ]tí] eta [ar[Ⓢ]Ⓢtí] baditugu ere bai, Etxart-ek *arrestiriko* (2002 : 54) : /a/, /e/ eta /i/ fonemen arteko zalantza bat bada ; *ühaitz* « mendi ibai » (428) [yhájts], bainan [yh[Ⓢ]Ⓢjts] ere bada berriz /a/ eta /e/ fonemen zalantzarengatik ; *buxi* « puxka, zati » (74) edo *muxi* (318) : /b/ eta /m/ fonemen arteko zalantza badugu. Azpieuskalkiak bereiz daitezke zenbait hitzen ahoskatzearen arabera.

Ahoskera desberdina baldin bada Zuberoako lurraldearen arabera, fenomeno hori « fonema zalantza » deituko dugu (« flottement de phonèmes » frantsesez).

• Hitztunaren ahoskatze desberdinak

Ohartu behar dugu ere hitz batzuek bi ahoskatze badutela ber hiztunarentzat, gorago fonema zalantza lerroaldean aipatu ditugunak zenbait aldiz ere. Adib. : *alkar* [álk^har] eta *algar* [álgar], *matela* [mat^héla] eta *maxela* [maéla] (*matel* eta *mazela*, 298), etab. Fonema zalantza bat da bainan hiztun batentzat.

Kasu horretan, bakoitzaren aldakuntza hori « fonema gorabehera » deituko dugu (« fluctuation de phonèmes » frantsesez).

4.2 Hitzaren ahoskatze aldaketak testuinguruaren arabera perpausetan

Ahozko mintzairan ohikoa den bezala, zenbait aldaketa fonetiko desberdin sor daitezke hitz juntaduran. Fenomeno horiek aipa ditzagun laburzki, motak denak aurkeztu gabe. Bainan lehenik erran behar da oraiko ortografia egokiena dela kontestutik kanpoko hitzen ahoskeraren grafia hautatuz eta perpausetan gertatzen den ahoskera baztertuz. Erabaki hori logikoa da, Davant-en hitza errepikatuz (ik. 1.2). Perpausetan hitzaren azken bokala edo kontsonantea aldatzen da ondoko mugatzailearengatik edo ondoko hitzaren lehen hotsarengatik. Halere hitzaren idazkera ez da kanbiatzen, bera baldin bazen gisaz.

• **Bokal hersketa** e > i : *bide* [bide], *bide bat* [bidébat] bainan *bidea* [bidí(j)a] eta ez *bidia*, eta beraz *bidean* [bidín] eta ez *bidian* edo *bidin* lehen idazten zen bezala²⁶. o > u : *lo* eta *loa* [lú(w)a] (mugatua), ez *lua*...

• **Ezpainkaritzearen galtzea** y > i : *Badüzü* [badýsy] / *Badüzüa* ? [badysí(j)a] (galdera) ; *xahü* (bat. *xahu*), *xahüa* [ˈãhi(j)a] (mugatua).

• **Kontsonante aldaketa** Adib. : *sos* « diru » [ˈsɔs], *sosa* (mugatua) [ˈsɔsɔ] : txistukariaren ozenketa sortzen da (ik. 3.8) ; *non sar* ? [núntˈar], txistukaria afrikatua bilakatzen da, etab.

• Bokalk, kontsonante edo silaba murrizketa

Ikusi dugun bezala ahozko mintzairan *bidean* [bidín] ahozkatzen da, ber gisaz *beharrian* [beharín], *bat bera* [bapéa], *zonbat* « zenbat » [sumát], *hamabost* [amúˈt],

²⁶ Euskalkien ahoskeran Euskaltzaindiak kanbiamendu horiek onartzen ditu : « <ea, oa> idazten diren bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola : *etxia*, *etxie* ; *geruago*, *telefonua* eta *kidekoak* » (1998 : 2, 2.a. araua).

egüerditan [eg[Ⓢ]4[Ⓢ]rtan], etab. *Bidean* [bidín] kasuan adibidez, hersketaz gain hiatoa kendu da.

Xuxen den bezala oraiko idazkerak morfologia fonetikoazko gertaera horiek ez ditu kontutan hartzen, hitz batek grafia bat baizik ez duen printzipioa jarraikiz.

4.3 Morfologia fonetikoazko agerpenak hitzen barnean

Halaber hitz barnean morfologia fonetikoazko gertaera desberdin sor daitezke. Ikus dezagun zein diren xehetasunetan sartu gabe.

• Bi bokal koropilatzea

Ahozko mintzairan silaba barneko hiatoaren kenketa maiz gertatzen da, jakitez diptongoak ere onartuak direla. Adib. : *joan* (232) [jo[Ⓢ]un] ahoskatzen da, Etxart-ek *jun* idazten du (2002 : 82) ; *eüsara* (115) / *üsara* (439) [j[Ⓢ]o[Ⓢ]ká] ikusi genuena (4.1), etab.

• Atzeranzko asimilazioa

Gibelaldeko bokalaren aitzinatzea gerta daiteke eta erran behar da kasu horietan ez dela fonema gorabeherarik (ik. 4.1) : *ülün* (431) [ýlhyn] ahoskatzen baldin badu, hiztunak ez du *ilun* (207) [ilhyn] edo [ilún] (bat.) ahoskatuko ; berdin *ütürri* (441) [yt^hýri] eta *itürri* (216), *ützüli* (441) [ytsýli] eta *itzuli* (217), etab. Asimilazio mota hori maiz gertatzen da Zuberoan, sistematikoa ez izanik ere.

Casenave-Harigile-k bi grafiak emaiten ditu. Gure ustez aterabide hona da jakinez asimilazioarekilako ahoskera dela arruntena.

• Aurreranzko asimilazioa

Adib. : *üili* (429) eta *uli* (431, bat.) emanik dira baina ez *üilü* [ý^héy] ahoskera arruntena.

• Aü [aj] diptongoa

Au diptongo zaharretik etortzen den [aj] diptongoa *aü* idazten da. Ezpainkaritzearen galtze hori perpausean gertatzen den aipatu genuena da (4.2). Adib. : *gaiü* (140) (bat. *gau*) [gaj] eta ez [ga[Ⓢ]], Niko Etxart-en pastorean *gaiko* (2002, azalean) idazten du. Halaber *aüzo* (38) (bat. *auzo*) [ájso] ; *gaiüza* (140) (bat. *gauza*) [gájsa], etab. Ez banaiz tronpatzen, [ay] beraz *aü* diptongoa ez da edireiten zubererari ; alderantziz [aw] *au* eta [aj] *ai* diptongoak maitztasun handikoa dira. Beraz onartua izan den *aü* grafia horrek aspaldiko ahoskera oroitarazten du. Ez dakit *ai* grafia egokiago daitekenetz, batuaren grafiatik urrunduko daiteke.

• Bokal arteko dardarkari bakunaren erorketa : sinkopa

Gaurregungo zubererari /r/ eta /rr/-ren arteko oposaketa neutraldua da leku oroetan (ikus 3.10). Bokal arteko /r/ bakunaren galdera bat bada eguneroko ahoskeran, silaba bat kenduz. Adib. *erori* (102) [er^hoer], bi dardarkari bakunak bokalen artean daudelarik ez dira ahoskatzen. Baina *erorten* [j^ho^hrt^ho^hn], bigarren dardarkari bakuna ahozkatzen da bokal bat eta kontsonante baten artean delakotz.

Xuxen den bezala *r* bakuna berrezarten da idazten denean, hori « logikoa » da. Kantuetan, pastoraletan, *r* bakun hori ahoskatzen da neurtitzak behar baldin badu. Zuberotar hiztunek badakite *r* bat badela : *hori* [h^ho^hj] baina *hortan* [h^ho^hrtan].

rh taldearekin berezitasun bat sortzen da : dardarkari bakunaren erorketa gertatzen da eta beraz [h] baizik ez da ahoskatzen. Adib. : *er(h)i* « behatz » (100) [éhi] *eri* (bat.) ~ *eri* [4j], *orit* « oroit » (349) [óhit], *soro* (395) [óóho]... hiztunek [r] eta [h] bereizten dute, dardarkari bakuna kenduz bi bokal artean baldin bazegoen bezala.

Kasu honetan zein ote daiteke idazkera egokiena ? Behar bada *rh* bikotearekilakoa, *orhit*, *orhit*, *sorho*.

• /n/ sudurkariaren eta /l/ albokoaren giblean den herskariaren ez ozentasuna

[n] edo [l] + herskaria kontsonante taldearekin herskariaren ozentasuna ez da beharrezkoa. Halarik ere *Hiztegia II*-n bi idazteko moldeak edireiten ditugu. Adib. : *heldu* (177, bat.) eta *heltü* (177) [h^h4^hltý] ; *mende* (300) eta *mente* (301) [m^h4^hte], Etxart-ek

erraztasuna edo alderantziz ikaste zailtasuna. Erraztasun hori harremanetan dago ahoskerarekin, erran nahi baita ortografiaren ikastea errazago daitekeela ahoskeratik hurbil baldin bada. Hala ere baiespen hori egiaztatzeko da.

Beste ondorio bat da ortografiak ahoskera finkatzen duela, hori noski guti gora behera, jakinez hitzunak ahoskatzeko askatasuna baduela eta ortografia finkatua baldin bada ere ahoskera aldatzen dela denborarekin.

Azpimarratu behar da ere ortografiaren ukaitea hizkuntzaren ezagupen sinbolikoa dela.

Azken finean, argi da ortografia bat erabilkorra izan behar daitekeela. Pragmatikoa da izenlagun egokia logikoa baino. Hala nola ez duela balio urte hanitz iragaitea ortografia ikasteko, frantsesarenarekin egiten den bezala.

5.3 Zubereraren ortografiaren kasua

Zubereraren ortografia bat hautatu baino lehen oinarritzko galdera hori da : zuberera euskalki oso bat dela onartzen ote da ? Hori baldin balitz, bere ortografiak ere erakutsi behar luke, ahoskeratik hurbil izatez. Bestenaz euskara batu mota bat izan daiteke, bere ortografiak bederen.

Euskaltzaindiak dio : « Euskara Batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) ahozko hizkuntza estandarra izango da... Ez da Euskara Batuaren ahoskatzeko modu bakarra eta are gutxiago noski, euskalkiak ahoskatzeko era » (1998 : 1). Ber gauza da idazkeraz nere ustez, zeren eta ez baldin balitz euskararen idazteko molde bat baizik, hori estandarra izan daiteke eta euskalkiek ez lukete beraz ortografiarik. Ortografiarik gabeko euskalkiak bere nortasuna ez du eskuratuko ortografiari esker bederen. Zubereraren ahoskera aldatuko da segurki, ortografia propio bat ukanik ere. Bainan nortasuna ahoskeraz lehen lehenik zaintzen baldin bada ere, zubererak beste euskalkiek bezala ez du askatasunik ukanen ortografia propiorik gabe, jakitez gero eta gehiago idazten dela. Uste dut ortografia propiorik gabe zubererak ez duela izaiterik ukanen gaurregun.

Beraz onartzen baldin badugu zubererak ortografia propio bat ukan behar duela, azterketa honen ondorio bat da zubereraren ortografia egokiena ortografia fonologiko bat izan behar dela. Eta hori egingarri da grafema berririk hartu gabe. Txomin Peillenek azpimarratzen du : « Halte à l'ignorance (sic) dans quelle langue au monde l'écriture est-elle phonétique ? » (1992). Egia da, bainan hori ez da gure gaia. Erronka da nola ortografia bakun bat egin, zuberotar fonetikatik eta batuaren ortografiatik hurbila litekeena. Garai bateko hitz forma hartuz ? Bainan zein garaitik ? Testuetarik lehen aipamena aidibidez ? Hiztunak ez dira etimologia adituak.

Zubereraren ortografia bakar baterako bidean traba bat badugu : zenbait hitzen ahoskera desberdinak fonema zalantza edo fonema gorabeherarengatik (ik. 4.1). Kasu horietan trinkatu behar da. Hori da Euskaltzaindiaren eta hiztegien eginbeharra.

Zubereraren ahoskeraren finkatzea ez da helburua, bainan guti gora behera euskalkiaren ezaugarriak kontserbatzea. Hortarako, grafia tresna bat izan daiteke, bakun baldin bada. Ahoskeraren begiratzea eta ortografiaren ikaste erreza izan beharko ziren bi helburuak zubereraren ortografia finkatu zenean. Horri buruz ohartaraz dezagun hizki propio bat ukaiteak ez duela hotsa begiratzen automatikoki : *s* hizkiak /s/ eta /ʃ/ txistukari apiko-albeolareak ez ditu kontserbatu belaunaldi gazteetan.

Beraz konponbide egokiena da, nere ustez, oraiko ahoskeratikako ortografia hurbil bat, fonologikoa guti gora behera, testuinguruak erakarriak diren ahoskera aldaketak baztertuz.

5.4 Zenbait proposamen errazterantz

Malgutasuna da aterabidea, zubererari askatasuna emanez ortografia propio bati esker. Horrek ez du erran nahi ortografia hori batuarenaz osoki desberdin izan behar dela. Eta ikusi

dugun bezala 1.1 lerroaldean, Euskaltzaindiaren erabakiak, « ortografia bakar hori behar dela bai euskalkietan eta bai euskaran batuan ere », zenbait eraketa onartzen dituela (ik. 2. oharra).

Gisa batez, zubererak bere ortografia propioa eskuratu du erakaskuntzan. Aurten, adibidez, Ikas pedagogia zentroak matematikazko zenbait liburu argitaratu ditu Iparraldeko haurrentzat, nafar-lapurtar eta zubererazko itzulpenez, Jean-Louis Davant zuberotar euskaltzainak itzuliak, Euskaltzaindia hizkuntza begiratzailerak delarik. Halaber *Pika* haur hilabetekariak bi itzulpen baditu, bata zubereraz²⁸.

Nere iritziz, iduri luke zubereraren ondoko eraketa horiek onar daitezkeela, *ü* hizkia izan zen bezala, **kontestutik kanpoko hitzen ahoskeraren grafia** hautatuz. 3. eta 4. ataletan proposamen horien argibideak aurkeztu ditugu, oraiko zubereraren ortografian zuberotar fonetika ezaugarriak idazteko onartuak izan ziren berezitasunak erakustean.

- *u* hizkia eta ez *o* /u/ ahoskatzen denean : *lu* « baldoki », *nur*, *trunpatu* (3.4).
- *nh*, *ñh*, *lh* eta *rh* hizki taldeak /h/ ahoskatzen denez geroz eta *h* hizkia onartua zen ber: *elhesta*, *lanho*, *erhi*, *sorho* (3.5). /p^h/, /t^h/ eta /k^h/ fonementzat erabakia ez da hain argi (3.6), *ikasi* edo *ikhasi* ? Bi grafiak onar genituzke.

- *ñ*, *ll*, *tt* leku oroetan, *dd* onartua izan den bezala : *artzañ*, *zuñ* « zein », *lloba* (3.7).
- Zubereraren asimilazioen onartzea : *üllü* « uli » (4.3).
- Arau orokor bat zuberotar hiztegiendako : grafia bat baino gehiago emana baldin bada, zein d(ir)en zuberarena(k) aipatzea.

Proposamen horiek ez dira hanitz eta ez berri ere. Batuaren ortografiaren printzipioetarik ez dira urruntzen. Garbitze arin bat baizik ez da. Berriz ere ez dugu zuberera batuaren aurka ezarri nahi. Bakoitzak bere lekua badu²⁹. Baina ortografia berezi batek euskalkiaren ezaugarriak bermatzen ditu erakaskuntza erraztuz (5.3), eta bere ezagutzaren sinbolo nagusi bat da. *Ü* hizkiari esker lehen begi kolpez irakurleak badaki zubererazko testu bat irakurtzen duela.

Nagusitu den zubereraren ortografiak batasunaren hautua egin du, berdintasunarena ez baldin bada. Soziolinguistikazko ikusmolde bat da, zenbait hizkuntzalaritzazko erabaki onekin ere. Adibidez perpausetan gertatzen diren hitzen ahoskera aldaketak baztertzea. Baina hizkuntzalaritzazko ikusmolde batek fonologiatik hurbilago daitekeen ortografia bat nahiago luke. Aipa dezagun Jean-Louis Davantek 1983an erraiten zuena orduko zuberotar grafiari buruz : « Eta geroago eta haboro hurruntzen gira euskara idatzitik. Beste Eüzkaldünek (*sic*) ezin gintiroie irakur eta entelega. Beraz, libürü bat ez dirogü inprima : Eüskal-Herri osoan ez bada zabaltzen, ez dü bere büria (*sic*) pakatüren, ez ordaintüren » (Belapeyre, 1983 : 14). Txomin Peillen-ek idazten zuen : « Pourquoi le souletin parler (*sic*) par une dizaine de milliers de personnes et lu par une soixantaine, aurait-il une orthographe ghetto différente de celle des autres dialectes basques, sachant que 90% des lecteurs souletins ne sont pas souletins » (1992). Zernahi gisaz, euskaldun batek, ez xiberotarra izanik ere, *nh* *n*-en ordeztuz, *ñ* *in*-en ordeztuz edo *ll* *il*-en ordeztuz edireiten baldin baditu ez da harrizta izan eta irakurtzen baldin badaki grafema horiek ere irakurriko ditu.

Egia da lexikoa eta sintaxia badiugula oraino erakusteko zuberera dela eta ez batua. Baina lexikoa berdintzen ari da ere eta sintaxia heinbatean, euskara batuaren eraginarengatik... Beraz oreka bat ediren behar dugu.

Gogorapen horiek polemikatik kanpo proposatzen ditut. Desiratzen ditudan « berrikuntza », aldaketa arin horiek, Euskaltzaindiaren erabakietan ez baldin badira sartzen,

²⁸ *Pika* hilabetekaria, Mendizolan argitarazlea, 28 PK, 64 130 Maule (Zuberoa).

²⁹ Ikus Coyos, 2001.

nik, bederen, oraiko arauak jarraikiz idatziko dut Junes Casenave-Harigile-n hiztegietaiko ortografia onartuz, hori baita oraiko zuberotar idazkera arautua³⁰.

AIPAMENAK

- ANONIMOA, 1676 (1998), *Pronus singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Evangelium populo legendus*, Pello Agirrek testu aurkeztua, *A.S.J.U.*, 1998, XXXII-1, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1-46.
- ARCHU Jean-Baptiste, 1848 (1990), *La Fontainaren alegia berheziak*, Ricardo Gómezen edizio prestatua, Oiarzun, Euskal editoreen elkarte, 277 orr.
- BELAPEYRE Athanase, 1696 (1983), *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, Edizio kritikoa, Jean-Louis Davantek paratua, Bilbo, Euskaltzaindia, 374 orr.
- CASENAVE-HARIGILE Junes, 1989, *Hiztegia Français-Eüskara* Züberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Züberoa), Hitzak, 620 orr.+Erratum.
1993, *Hiztegia II Eüskara-Français*, Xiberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Xiberoa), Hitzak, 560 orr.
- CHARRITTON Piarres – KINTANA Xabier, 1997, *Hiztegia Dictionnaire Euskara-Frantsesa / Frantsesa-Euskara*, Donostia-Baiona, Elkar, 597 orr.
- CONSTANTIN Jean-Baptiste, 1926 (*Eskualduna* aldizkarian) - 1996, *Haritchabaletaren bizia*, Donostia, Klasikoak, Patri Urkizuren edizioa, XVIII+119 orr.
- COYOS Jean-Baptiste / Battittu, 1994, Des occlusives aspirées en basque, *La Linguistique*, 30, 2, Paris, P.U.F., 131-138.
1999, *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan, 432 orr.
2001, Souletin et batua : pour un duo plutôt qu'un duel, *Madeleine de Jauréguiberry Omenaldia - Hommage*, Lankidetzan bilduma 21, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 77-84.
- DAVANT Jean-Louis, 1993, Zuberotar grafiez, *Argia*, 1454. zka, 41.
2001, *Zuberoako idazle zenduak*, Donostia, Elkarlanean, 215 orr.
- ETXART Niko, 2002, *Ürrüti Jauregiko Peirot pastoral* - *Altzürükü*, Maule, de Arce inprimategia, 103.
- EUSKALTZAINDIA, 1979, Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren erabakia, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 1 Bilbo, 91-92.
1979, Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindaren erabakia, Euskaltzaindiaren agiriak, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 1, Bilbo, 91-92.
1979, Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak, Euskaltzaindiaren agiriak, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 1, Bilbo, 101-106.
1998, Euskara batuaren ahoskera zaindua, Euskaltzaindiaren 87. araua, Euskaltzaindiaren webgunean, 3 orr.
1999, Zuberoako herri eta herritarren izendegia, *Euskera*, separata, Bilbo, 32 orr.
- GAVEL Henri, 1960, Revendication en faveur du souletin, *Gure Herria*, 25. urthea - 4 urria, Baiona, 210-213.
- GEZE Louis, 1873, *Eléments de grammaire basque, dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*, Bayonne, fac-similé, 1979, Donostia, Hordago, VII+ 360 orr.
- IKAS, 2002, RETZ, 2001, *Matematikak lantzen*, CP lehen mailako 1. urteko fitxategia, 64 480 Uztaritze (Lapurdi), 144 orr.

³⁰ Liluratu gabe nere ikusmoldea aurkezten dut jakinez duela guti finkatua izan den ortografia hori orai ontsa onartua baita. Davant-ek idazten didan bezala : « Mementoan badit beldürra jarraikizale güti dükezüla idazten düenen artean ».

- INCHAUSPE Emmanuel, 1858, *Le verbe basque*, Bayonne / Paris, Veuve Lamaignère / Benjamin Duprat, Hordago fac-similé, XII+511 orr.
- LAFON René, 1948, Remarques sur l'aspiration en basque, *Mélanges offerts à M. le Professeur Henri Gavel*, Toulouse, Edourd Privat et Cie, 56-61.
- 1962, Sur la voyelle *ü* en basque, *B.S.L.*, 57, 1, Paris, Klincksieck, 83-102.
- LHANDE Pierre, 1926 - 1938, *Dictionnaire basque-français et français-basque (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*, tome I, Dictionnaire basque-français, Paris, Gabriel Beauchesne, LII+1117 orr.
- MITXELENA Luis / Koldo, 1961 (1985), *Fonética Histórica Vasca*, 3.^a edición, San Sebastián, Diputación Foral de Guipúzcoa, Publicaciones del Seminario "Julio de Urquijo", 596 orr.
- 1968, Ortografia, Arantzazu-ko biltzarrak, *Euskera*, Bilbo, 203-219.
- PEILLEN Txomin, 1990, Aita Junes Casenave Harigileren hiztegia, *Euskera*, XXXV, 1, Bilbo, 231-234.
- 1992, A quoi bon écrire !, *Le miroir de la Soule* bihilabetekaria, 907. zenb., 1992/10/10, Maule (Zuberoa).
- 2000, Nom de noms !, *Le miroir de la Soule* bihilabetekaria, 1081. zenb., 2000/01/08, Maule (Zuberoa).
- 2001, *Agur Zuberoa*, Urretxu-Zumarraga, Biba Xiberua ! elkarte, 63 orr.
- QUEHEILLE Patrick, 2002, *Lau Bűrü - Barkoxe*, Ozaze, Ideki inprimategia, 59 orr.
- TARTAS Jean de, 1666 (1975), *Ontsa hiltzeko bidea*, Andolin Eguzkitzak prestatu edizioa, Aranzazu, Edizio franciscana, 172 orr.
- ZUAZO Koldo, 1989, Zubereraren sailkapenerako, *A.S.J.U.*, XXIII, 2, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 609-650.